

## Bizitza hizpide eta inspirazio inurritegian

'Nola egin aurre bizitzako kolpeei' ekitaldia egin du 'Inurri' egitasmoak Jalgi Kafe Antzokian; lepo bete da aretoa / 6-7

**Zeremonia zibilen araudia eta urtarrilaren 30eko greba orokorra hizpide udalbatzarrean** / 2

**Bizikidetzari buruz hausnartu dute herritarrek Antonio Mercero aretoko jardunaldietan** / 3

**Erakusketa ireki du Jokin Goenaga musikariak; QR formatuan aurkeztu ditu bere lanak** / 5

**Euskal Ligan jokatu du Ostadar Saskibaloia saileko Errendimenduko kadeteen taldeak, otsailetik aurrera** / 12



## Alkate berriarekin solasean

Agustin Valdivia sozialistak hartu du Jesus Zaballosen lekukoa / 8-9

TXINTXARRI

LaSalle Berrozpe  
**LSB**  
Andoain

2020 · 2021  
MATRIKULAZIOA

2018AN JAI OAK  
**ATE IREKIEN JARDUNALDIA**

URTARRILAK 25 @ 11:00etan

Etorkizunerako Bidean!

**2car** Zumaburu kalea 18  
20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 24 63

BestDrive  
You drive, we care.

EZAGUTU ITZAZU  
SALGAI DITUGUN  
GURPILEN MARKAK

BA AL DUZU  
**AQUACTRL®**  
CONTINENTAL  
HAIZETAKO-  
GARBIGAILUEN  
BERRI?

Continental  
BestDrive  
MABOR  
Bawum  
UNIROYAL

AQUACTRL

www.bestdrive.es





Bost puntuko gai ordena jarri dute mahai gainean, urtarrileko lehen udalbatzarrean. TXINTXARRI

## Zeremonia zibilak eta U-30eko greba orokorra

Lehen aldiz hartu du udalbatzarren gidaritza Agustin Valdivia alkateak, eta eztabaidarako gaiei hasiera eman aurretik, David Mateos zerbitzu publikoen arduraduna izendatu du bigarren alkateorde. Urtarrilaren 30eko grebak desadostasunak sortu ditu

### Maddi Zaldúa

David Mateos bigarren alkateorde izendatuz hasi du bere lehenengo udalbatzarra alkate berriak, Agustin Valdiviak. Zerbitzu publikoen arduraduna izango da hemendik aurrera bigarren alkateordea. Jakinarazpen horren ostean hasi dute eztabaida.

Zeremonia zibilen inguruan aritu dira lehenik. Horiak arautzen dituen erregelamenduaren eskerako onarpena bozkatu dute, eta aho batez onartua geratu da. Alkateak azaldu du, alderdi guztien ekarpenak izan dituztela kontuan. Ekarpene batzuk bere horretan onartu dituzte, eta beste batzuk, berriz, trantsakzionalen bitartez txertatu dira arautegian.

Hirugarren puntuak sortu du desadostasun gehien. Mozio baten bidez, lan pentsio eta bizitza duinaren aldeko urtarrilaren 30eko greba orokorrari atxikitzeko eskaera egin du EH Bilduk, baina ez du babes nahikorik lortu, eta ez du aurrera egin proposamenak. PSE-EE eta EAJ alderdiek mozioaren kontra bozkatu dute, eta Elkarrekin Lasarte-Oria Pude,

berriz, abstenitu egin da. David Aresen egin du botoaren azalpena lehenik: "Greba egin nahi dutenen eskubidea errespetatzen dugun arren, pentsionisten koordinakundearen arteko bateratze faltak dudak sortzen dizkigu, uste dugu modu bateratuan babestu beharko litzatekeela mobilizazioa".

Horren ostean, EAJko Jon Antxordokik azaldu du zergatik bozkatu duten aurka. "Gernikako estatutua betetzen ez bada, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ez dauka eskaera horiek betetzerik". Horrekin batera, azaldu du Espainiko Gobernuan EAJk egindako negoziaketa betetzen badute -PSOEk eta Podemosek-, Gernikako estatutuan falta diren eskumenak eskuratuko direla. Hortaz, "grebaren deialdiaren eskaerarekin akordiotara iristea posible izango da".

Bosgarren eta azken puntuari hasiera eman aurretik, galdera eta erreguen tartea zabaldu dute, eta Ares izan da hitza hartzen lehena. Udal aurrekontuak aurkezteko data zehaztu duten galdetu dio alkateari. Honek

erantzun dio, zirriborroa lantzen ari direla, eta amaitu bezain laster aurkeztuko dutela.

Boris Nogales EAJko zinegotziak hartu du hitza gero. Lurrazpiko zaborrontzien gaia jarri du mahai gainean; gobernu taldea gaiarekin "inprobisatzen" ari denaren susmoa du alderdi jeltzaleak. "Herriarrei hiri hondakinak kudeatzeko galdeketa azaroaren 20an egingo zitzaie esan zitzaigun, eta hori egin ez, eta gaur bertan jakin dugu galderari ekarpenak egiteko epea zabaldu dela". Horren aurrean, herri galdeketa noiz egin asmo duten galdetu diote PSE-EEri.

Herri galdeketa egin aurretik, idazkariak herritarrekin galdera adosteko epealdi bat irekitzeko proposamen egin zuela azaldu dio Nagore Duran Parte-hartze zinegotziak, eta gehitu du behin galdera adostuta, udalbatzarrera eramango dutela gaia, ondoren Madrili baimena eskatu eta galdeketa martxan jartzeko. Udalbatzarra amaitu aurretik Jesus Zaballosek zinegotzi karguari uko egin diola jakinarazi du alkateak.



Herritar ugari bildu zen astelehenean, Okendo plazan. TXINTXARRI

## 2020. urtea itxaropentsu hasi dute pentsiodunek

Gobernu berriak euren eskaera guztiei erantzun arte, pentsio duinen aldarriak kalean jarraituko du

### Txintxarri

2018ko urtarrilean bost herritarrek pentsio duinen aldarrikapen irmoa egitea erabaki zuten eta horretarako Okendo plazara hurbildu ziren haien ezinegona aurkezteko. Geroztik, bi urte igaro dira eta 2020. urteko lehen bileraraino, Lasarte-Oriako Pentsiodunen eta Erretiratuen kideek gogoan izan zituzten lehen bide-erakusle haiek. Agerraldian Gobernu eratu berriak pentsioen aferean sortzen duen esperantza nabarmendu zuten. Batez ere, Gizarte Segurantza eta pentsio sistema hobetzea espero dute gizarteko kolektibo zaurgarriek bizitza duina izan dezaten. Horretarako, gutxieneko pentsioa pobrezia ataria edo lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagokoa izatea eskatuko dute, baita pentsioen balio handitzearen legean ezartzea ere.

Toledoko paktua, berriro ere, indarrean jartzea kezkatzen ditu,

beti ere, ez bada Gizarte Segurantza eta pentsioen sistemaren prestazio eta kalitatea hobetzeko. Era berean, pentsioei buruz hitz egiterakoan Estatuko Koordinakundea Gizarte Elkarrizketarako Mahaian egotea eskatzen dute.

Horrela, argi utzi dute euren eskaera guztiak bete arte ez dutela kalea utziko eta astero, astelehenean 11:30ean, Okendo plazan bilduko direla pentsio duinen alde egiteko.

Horrez guztiaz gain, koordinakundeko kideek hurrengo bileretan urtarrilaren 30ean deitua dagoen grebarako aipamen handirik egingo ez dutela jakinarazi zuten. Herritarren eskura utzi dituzte greba egitearen aldeko eta aurkako argudioak azaltzen diren eskuorriak, eta bakoitzak bere erabaki hartzera gonbidatu ditu koordinakundeak plazara hurbildu ziren herritarrei.

## Herri kontsulta, hiri hondakin galdeketa landu baino lehen

Hiri-hondakinak biltzeko zaborontziei buruzko herri-kontsulta egitea erabaki zuen Lasarte-Oriako Udalak. Berme guztiak izateko, Espainiako Ministroen Kontseiluak onetsi behar du, baina lehenik udalbatzarrak galdera eta galdeketa baldintzak zehazten dituen eskaera onartu behar du. Administrazio Publikoen Prozedura

Administratibo Komunaren 39/2015 Legearen arabera, baldintzak lantzeko beharrezkoa da lehenik herritarren proposamenak jasotzea.

Horregatik, ekarpenak egin nahi dituzten herritarrek Udaleko Erregistroan idatzi bat aurkeztu beharko dute. Herritarren Parte-hartzearen atalean edo [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus) helbidean ere egin daitezke iradokizunak. Urtarrilaren 30a da herritarren iritzia jasotzeko azken eguna, osteguna.

# Bizikidetzari hauspo eman diote hiru jardunaldirekin

Hiru jarduera egin dituzte egunotan bizikidetzari lantzeko. Astelehenero 'Reconciliación' dokumentalak ireki du aurtengo jardunaldia. 'Biziminak' antzezlanak ikusteko aukera izan dute asteazkeneko egitasmoan parte hartu dutenek. Azkeneko ekintza ere dokumental bat izan da: 'El valor de la autocrítica'

## Maddi Zaldua

*Reconciliación* dokumentalak ireki du aurtengo bizikidetzari jardunaldien egitaraua. Astearte iluntzean eskaini zuten ikus-entzunezkoa Mercero gunean. Juan Maria Uriarte gotzain emerituak idatzitako liburua oinarri hartuta sortu du Fermin Aiok lana, eta ETaren, GALen eta poliziaren gehiegikerien biktimak izan diren hamar biktimen zuzeneko testigantzak erakusten ditu dokumentalak. Horien artean agertzen da Josu Elespe. Bere aita, Froilan Elespe, Lasarte-Oriako Udalean PSE-EEko zinegotzi zela, ETak hil zuen 2001. urtean. Bere testigantzekin batera, Sara Buesa (Fernando Buesaren alaba), Andoitz Korta (Joxemari Kortaren semea), Pili Zabala (Joxi Zabalaren arreba), Iñaki Garcia Arrizabalaga (Manuel Garciaren semea), Ines Nuñez (Francisco Javier Nuñezen alaba), Leire Goikoetxea (Joseba Goikoetxearen alaba) eta Jon Doral (Montxo Doralen semea) agertzen dira hizketan. Bizikidetzaz eta adiskidetzaz bakoitzaren ikuspuntua agertzen du ikus-entzunezkoak.

Dokumentala amaitu ostean, gogoetak elkarbanatzeko tarte bat zabaldu dute. Isiltasuna izan da nagusi lehen minutuetan, baina ausartu dira bertaratuko batzuk euren gogoetak plazaratzera. Biktimen eskuzabaltasuna azpimarratu du ikus-entzule batek,



Itziar Elias aktorea, 'Biziminak' obraren momentu batean. TXINTXARRI

eta Lasarte-Oriako Bizikidetzari Taldeko bizipenak ekarri ditu gogora beste batek. Azken boladan, herriko biktimekin ari dira lanketa egiten, eta "oso emankorra" izaten ari dela nabarmendu dute.

## Asteazkenean, antzerkia

*Biziminak* antzezlanak eskaini du Itzel konpainiak, asteazken iluntzean. Gatazka armatuaren testigantzak bilduta osatu dute antzezlanak, eta zuzeneko musikarekin eta pinturarekin uztartzen dute antzerkia. Itziar Elias aktore azkoitiarrak, aspaldi sentitzen zuen barruan zeraman gaia kanporatzeko beharra, eta 2016. urtean, Jon Maia bertsolariaren *Kanta bat gara* poema entzuterakoan hasi zuen prozesua. Hortik sortu du antzezlanak

eta Maddi eta Dani Irazoki anai-arrabekin batera lantzen du oholza gainean.

Gatazkaren biktimak izan diren hiru pertsonen testigantzak azaleratzen ditu audio bidez; motxiladun haur bat, ETaren biktimak bat eta ETako preso ohi baten bizipenen berri ematen dio obrak ikus-entzuleari.

Atzo izan zen bizikidetzari jardunaldien hirugarren eta azken jarduera. Dokumental bat eskaini zuten horretan ere: *El valor de la autocrítica*. Iraganaren irakurketa kritikoa egiten duten pertsonen lekukotzak erakusten ditu. ETako, KAS Koordinadora Abertzale Sozialistako, Italiako Brigada Gorrietako eta Ipar Irlandako IRA eta UVF unionistako kide ohiak agertzen dira dokumentalean.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

## Herriaren hitza – Bertsolaritza

Ez naiz bertsolaria. Ez naiz bertsozalea. Ezta bertso sortzailea. Ez nau inoiz bertso munduak erakarri. Zer egingo diogu ba. Euskaltzale orok behar duen ezaugarri horietako bat ez dut betetzen nik. Horrela da eta kitto. Ez da saiakerarik egin ez dudalako. Izana naiz hainbat bertso saiotan. Zabaletako festetan, Jalgiko emanaldi xumeren batean, elkarteren bateko bertso saio dibertigarrien bat ere bizi izan dut. Nola ez txapelketa lehiakor horietan ere egona naiz. Ongi pasa izan dut bertsoak entzuten, albokoarekin partekatzen eta zergatik ez bertsoak askotan eskaintzen duen hausnarketa edota bigarren ulermen-irakurketa horiek egiten ere. Bertso sorkuntzan ere egin izan dut ahalegina.

Aurreko paragrafoarekin borrokan bezala arituko naiz jarraian, iduri baitut, gure herrian ez dela sobera baloratzen bertso munduak azken bizpahiru hamarkadetan egin duen ahalegina. Ahalegina bertsoa plazaratzen. Esfortzua bertsoa hezkuntza mundura zabaltzen, bai eskoletan baita bertso eskoletako harrobietan ere. Lana bertsolaritza mundua gizarteari zabaltzen eta berdintasun eredu garbian kokatzen. Indar erakustaldiak eman ditu bertsolaritzak azken urteotan txapelketa nagusietan biltzen dituen entzule kopurua ikusita. Bertsolaritza, gure hizkuntzaren eragile nagusienetarikoztat ulertzen dudala esan behar dut. Hizkuntza oinarri hartuta, bere horretan jolasa, pentsamendua, sentimendua eta abilezia uztartzen dituelako. Bertsolariak ausardia, enpatia, aberastasuna eta komunikaziorako gaitasuna behar dituelako ezinbestean. Pentsa aipatu ditudan ezaugarri horiek guztiek zer nolako indarra ematen dioten gurea bezalako herri txiki baten izaeraren zati adierazgarrienetariko bati. Lan ederra egiten ari zarete bertsolari, bertsozale eta bertso-eragile hainbat gure herriaren altxorra dugun bertsoa zaindu, mantendu eta indartzeko. Jarrai ezazue horrela. Nire babes osoa izango duzue eta saiatuko naiz bertsoak ni harrapa nazan. Gaur egun ordea, sentitzen dut baina bertso mundua maitatu, sustatu eta hezkuntza mailan indartzen saiatuko naizela hitz ematea besterik ez zait geratzen, ez bainau oraindik harrapatu. Ez bainau oraindik maitemindu.



**aek**  
euskara praktikoa

**Zu hemen zaude,  
AEK ere bai**

## MATRIKULAZIOA ZABALIK

eman izena!

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.

Munteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria • 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus  
www.munteri.blogspot.com.es



# Solaskidetik adiskidera, euskara praktikatzuz

Hainbat dira euskararen ahozkotasunean trebatzeko Solaskide programan parte hartzen duten herritarrak. Egitasmoa "oso lagungarria" zaie euskaltegian ikasitakoak praktikan jartzeko eta lotsa kentzeko; herritarrak ezagutzeko ere "aukera ona" da

## Maddi Zaldua - Iñigo G. Sarobe

Eguraldi txarra egiten ez badu, ostiralero, euskarari hauspo emanaz Zubietako buelta ematera joaten dira Mari Jose Eizmendi (euskaldun zaharra), Montse Otero eta Nati Gallo -azken honek ezin izan du TXINTXARRI-ren hitzordura etorri-. Hiru izan dira solaskide taldean orain arte, baina laugarren kide bat gehitu zaie duela ez asko: Eva Yurramendi.

Euskaltegiko ikasleak dira Otero eta Yurramendi. Baina euskararen ahozkotasunari leku gehiago egin nahi zioten euren ikasketa prozesuan, eta horregatik ari dira Solaskiden. Paseotxo bat emanaz, egunerokotasuneko gaien inguruan hitz eginaz lantzen dute ahozkotasuna.

Montsek bederatzirte urte daramatza Mari Joserekin euskara praktikatzeko, eta urte luze horietan egindako aurrerapauoez jabetu dira biak. Finkatutako helburuak bete ditu Oterok: "Bi helburu lortzeko eman nuen izena; batetik, euskaraz hitz egitea, eta bestetik hizkuntza-eskakizuna lortzea, eta biak lortu ditut".

Eizmendik, ordea, hamabost urte baino gehiago daramatza

programan bidelagun gisa, "martxan jarri zenetik", eta aurrerapauoak ikusten dituela ziurtatu du. "Euskarari zerbait zor diot, eta ekarpen hori egiten ari naiz".

Yurramendi ere "oso gustura" ari da. Euskara praktikatzeko aukera "ezin hobea" da berarentzat: "Euskaldun zaharrek euskaraz hitz egiteko aukera izatea oso lagungarria da". Bi solaskideek azpimarratu dute lotsak eta beldurrak ez dutela lekurik taldean: "Inork ez gaitu epaitzen, euskaraz lasai aritzen gara, eginaz ikasten". Euskara praktikatzeko taldea ez ezik, lagun taldea bihurtu da dagoeneko: "hainbeste urte eta gero, gure egunerokoa elkarbanatzen dut Mari Joserekin, adiskideak gara", azaldu du Montse Oterok.

Egitasmoan parte hartu edo ez zalantzan dauden herritarrei animatzeko deia luzatu diete Oterok, Yurramendik eta Eizmendik. "Utzi ditzatela

## EUSKALDUN ZAHARREN LAGUNTZA "EZINBESTEKOA" DA IKASTEN ARI DIRENENTZAKO

beldur eta lotsak alde batera, eta etor daitezela euskara praktikatzera, ez dira damutuko".

## Solaskide eta adiskide

Astegunetan elkartzen dira Mikel Izquierdo, Juan Segurola, Aurelio Garcia, Iñaki Arribas eta Juan Bereziartua. Astelehen arratsaldetan elkartu dira orain arte, 18:15ean; datorren astetik aurrera hitzordua aldatzea erabaki dute, astearteetara. "Egunerokotasunari buruz hitz egiten dugu, herrian gertatzen diren gauzez, gure lanez, planez, oporrez... Ordu eta erdiz aritzen gara solasean, gustura", nabarmendu du laukoteak -TXINTXARRI haiekin elkartu denean Juan Bereziartua joana zen-. Argia aldizkariaren ale bana ere eramaten du astero Juan Segurolak. Bertan jorratzen dituzten gaiak lantzen dituzte, eta denborapasak ere bai, egiteko "errazena" direnak.

Astero elkartzen diren bost pertsona horiek lauzpabost urte daramatzate elkarrekin. "Gu bostok lehenagotik hasi ginen elkartzen, baina jende gehiago ere etortzen zen", adierazi dute. "Polimaitasun iraunkorra" da euren arteko harremana, bota du Izquierdok, barre artean.



Montse Oterok eta Eva Yurramendik Mari Jose Eizmendi dute bidelagun. TXINTXARRI



Ezker-eskuin: Mikel, Juan, Iñaki eta Aurelio. Juan Bereziartua falta da argazkian. TXINTXARRI

Segurolak hamazazpi urte daramatza egitasmoan parte hartzen. "Solaskide sortu zenean hasi nintzen". Euskaldun zaharra da, Bereziartua bezala. Beste hiru kideak, Garcia, Arribas eta Izquierdo, euskaldun berriak. Euren ere urte ugari daramatzate egitasmoan parte hartzen:

hamahiru, hamalau eta hamabi, hurrenez hurren. "Euskaraz hitz egiteko aukera paregabea da, beldurrak eta lotsak alde batera uzteko; eta herriko jendea ezagutzeko ere bai". Talde desberdinetako kideek badute harremanik euren artean: afariak egiten dituzte urtean zehar.

## Ibon Fernandez Iradiri buruzko erabakia, otsailaren 27an

Parisko Dei Auzitegiak egun horretan deliberatuko du euskal preso herritarraren zigor-etete eskaerari buruz

### Txintxarri

Parisko Dei Auzitegiak otsailaren 27an erabakiko du Ibon Fernandez Iradiren kasuari buruz. Euskal preso herritarrak zigorra etetea galdegin du, bigarren bezala. Larriki gaixo dago: esklerosi anizkoitza

diagnostikatu zioten 2013an, nahiz eta lehen sintomak lehenago pairatu.

Zigorrak Ezartzeko Frantziako Auzitegiak azaroan eman zuen ebazpena: adierazi zuen Fernandez Iradiren gaixotasuna

eta espetxean giltzapetuta jarraitzea ez zirela bateragarriak. Erabaki horren berri jakin eta berehala, helegitea jarri zuen prokuradoreak, behin betiko deliberazioa atzeratuz.

Duela bost urte ekin zion epaitegietako bideari herritarraren defentsak; atzera bota zuten zigorra eteteko lehen eskaera 2014an. Gaur egun, eritasun larriak dauzkaten 21 euskal preso daude kartzelan, Sare erakundeak emandako datuen arabera.



Lasarte-Oriako Sarek mobilizazioa egin zuen urri bukaeran, Okendo plazan. TXINTXARRI



# Txikitatik ikasitakotik sortuz eta erakutsiz

**JOKIN GOENAGA MUSIKARIA**

Musika erakusketa ireki du musikari lasarteoriatarrak Mercero gunean. QR formatuan aurkeztu ditu bere lanak, eta horiek entzuteko ezinbestekoa da 'smartphone'-a erabiltzea

## Maddi Zaldua

Zortzi urterekin hasi zen Jokin Goenaga (Lasarte-Oria, 1967) musika eskolan. "Aita zenak afizio handia zuen akordeoiarekiko, eta gurasoek hala nahi zutelako" hasi zen instrumentu hori ikasten. Ez da sekula damutu. Lasarte-Oriako Santa Cecilia akademian hasi zuen musikari ibilbidea, eta gero, Donostiako Kontserbatorioan, Akordeoiko goi graduako irakasle titulua lortu zuen. Akordeoiaz gain, pianoan ere moldatzen da.

Musikari ibilbidean, askotariko estilotako melodiak sortu ditu, eta orain, idatzitako lan horiek, erakusketa musikala ireki du Mercero gunean. 107 obra jarri ditu entzungai, baina ez edozein modutan; QR formatuan agertu ditu melodia guztiak jendaurrean. Ikus-entzuleak, telefono mugikorrarekin QR kodea eskaneatu, eta Goenagak sortutako doinuaren bideo bat jasoko du. Hortaz, sortutako



Jokin Goenaga. TXINTXARRI

lanak entzun ahal izateko, ezinbesteko da *smartphone* telefono adimendunarekin eta entzungailuekin bertaratzera.

## Instrumentua hartu eta sortu

Horrela egiten du Goenagak. Akordeoi edo piano aurrean jarri, eta erritmoan pentsatzen du lehenengo. Hori finkatuta duenean, doinua jotzen hasi eta sortzen doana idatziz egiten ditu partiturak. Beste batzuetan,

berriz, ideia bururatzen zaio, eta hortik abiatuta sortzen du melodia.

Bederatzi multzotan banatu ditu erakusgai jarritako 107 doinuak, eta horietako multzo bat Lasarte-Oriako abestiekin osatu du. Hain zuzen ere, *Lasarteko Martxa*, *Himno de la Peña Palomo Linares*, *Oriatik Lasartera*, *Sasoetako Txalapartariak*, *Zabaletako gaina* eta *Okendoko palmondoa* dira bere herriari eskainitako melodiak. Euskal Herriko eta Espainiako hainbat herritan erosi dituzte Goenagaren lanak, baina Frantzia, Alemanian eta Israelen ere badituzte musikari lasarteoriatarraren melodiak.

Bihar eguerdiko 12:00etatik 14:00etara irekiko ditu ateak erakusketak, eta datorren astean, berriz, 18:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera.

**Okendoko palmondoaren melodia**



Michelin Lasarteko langileak hitzarmenaren alde borrokan. LAB MICHELIN

## Hitzarmenaren alde lanuzteak egiten ari dira Michelin Lasarten

Orain arteko bi lanuzteak "oso arrakastatsuak" izan dira, eta gehiago aurreikusi dituzte urtarrilerako eta otsailerako

### Txintxarri

Urtarrilaren 8an egin zuten ordubeteko lehen lanuztea Michelin Lasarteko langileek. Horren ostean, asteazken honetan utzi dute, berriro ere, bere lan jarduna ordubetez, eta lantegi atarian bildu dira, hitzarmen "on" bat exijitzeko.

Michelingo zuzendaritzak negoziazio mahaian egindako eskaintza "bidegabe eta merezigabearen" ondorioz hartu dute lanuzteak egiteko erabakia.

Jakinarazi dute, 2015-2018aldian, 200 milioi euro inguruko etekin konstanteak lortu zituela enpresak, urtero 860 milioi baino gehiago aldi osoan. Horri gehitu diote, 2018an egindako ekoizpena eskuragarri dagoen ahalmen

osoaren %90a izan zela; hortaz, instalazioak "okupazio ona duela".

Enpresarengandik jasotako azken eskaintza hau izan da: %2,5eko soldata igoera lau urtetan berrikusi gabe; zortzi orduko gehikuntza bost ekipoko lan-sisteman -gainerako sistemak ez dute igoerarik izan-; eta eragin txikia duten arazo zehatzetan aurrerapen xumeak.

### Datozen egunetarako lanuzteak

Urtarrilaren 22an eta 29an, berriro ere ordubeteko lanuzteak egingo dituztela iragarri dute. Horrekin batera, otsailaren 5ean eta 19an ere irtengo dira kalera, eta zortzi orduko lanuzteak egingo dituzte bi egun horietan.

Lasarte-Oriakoentzat  
garraio zerbitzua!!

Udarregi  
IKASTOLA

**Matrikulatzeko epea** (3 urtetik-16 urtera)  
Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra (biak barne)

**Ate irekiak**

Urtarrilak 25, 10:30ean jangelan.

**50**  
urteko esperientzia

943 361 216

Gernika ibilbidea. USURBIL  
www.udarregi.eus



- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza integrala (0-16 urte bitarte).
- Euskalduna. Euskaldun konprometitua hazten ditugu.
- Irakaskuntza Eleanitza: ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa DBHn.
- Ikastola inklusiboa, guztion ikastola bultzatzen dugu: aniztasuna, garapen erritmo ezberdinak aintzat hartuz.
- Ikastola Berritzaileak: Berrikuntza didaktiko, metodologiko eta teknologiko etengabeak.
- KiVa Ikastola: Eskola Jazarpenaren (bullyinga) aurkako programa indarrean.
- Autobus zebitzua: Lasarte, Zubieta, Santuenea eta Aginaga.
- Jangela: Bertan sukaldatutako herriko produktuak
- Zaintza zerbitzua. 8:00etatik 9:00etara eta iraila eta ekainean 14:30etik 16:30era.
- Zirimara aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak: Kirola, dantza, xake, antzerkia, robotika,...
- Beka sistema propioa: kuoten %100 bonifikatua.



# Bizitzari buruzko hausnarketak

## Jalgi, ikus-entzulez lepo

*Nola egin aurre bizitzako kolpeei.* Hori izan zen Inurri egitasmoak pasa den asteko ostiral gauean antolatu zuen ekitaldiaren izenburua, eta muina. Jalgi Kafe Antzokia jendez lepo zegoen. Ez zen gutxiagorako: hilabete gutxitan, asko hedatu da Julene Illarramendi eta Miren Cuerdo herritar gazteek sortutako proiektua. Minbizia pairatzen duten pertsoneri eta euren gertukoei laguntzea da euren helburu nagusia.

Bi sortzaileek ireki zuten ekitaldia, aurkezpen hitzaldi batekin. Proiektuaren nondik-norakoak azaldu zituzten, umorea eta emozioak tartekatuz. Ondoren, gonbidatuen txanda: Markel Irizar txirrundulari ohiak bere testigantza eskaini zuen. 22 urterekin barrabiletako minbizia aurkitu zioten. Tratamendua jaso, sendatu, eta ibilbide profesionalarekin jarraitu zuen, iazko abuztura arte. Familia ere izan du. Ondoren, Olatz Salvador artista donostiarrak musika emanaldia eskaini zuen, ikusleak gatibatuz. Zozketak ere egin zituzten ekitaldiaren antolatzaileek.



Ikusmin handia sortu zuen 'Nola aurre egin bizitzako kolpeei' ekitaldiak, argazkian ikus daitekeenez. TXINTXARRI



Ikus-entzuleak, zozketetako errifak eskuetan dituztela. Hainbat produktu sorta zozketatu zituen 'Inurri'-k TXINTXARRI



Miren Cuerdo eta Julene Illarramendi lasarteoriatar gazteek sortu dute 'Inurri' egitasmoa.



Markel Irizar txirrundulari ohiak bere testigantza pertsonala eman zuen. TXINTXARRI





Biek ireki zuten ekitaldia, aurkezpen hitzaldi batekin. TXINTXARRI



Olatz Salvador artistak kontzertua eskaini zuen. 'Zintzilik' laneko hainbat abesti eskaini zituen, eta gehiago ere bai. TXINTXARRI



Bukaeran, 'photocall'-a: irudian, antolatzaileak eta protagonistak. TXINTXARRI



Jalgi Kafe Antzokian elkartu ziren herritarrek gustura entzun zuten Salvadorren emanaldia. TXINTXARRI

# EPA LASARTE HHI

## MATRIKULA EPEA ZABALIK

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazioatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza** (DBHko titulua lortzeko moduluak).
- **Gaztelania atzeritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Ordutegia:  
10:00-13:00 eta  
17:00-19:00  
(anbulategi gainean)



# "Kirol azpiegiturek dute lehentasuna legealdi honetan"

AGUSTIN VALDIVIA LASARTE-ORIAKO ALKATEA

"Ilusio handiz eta gogotsu" ekin dio Agustín Valdivia sozialistak 2020. urtea: bera da Lasarte-Oriako alkate berria, Jesus Zaballosen lekukoa hartuta. "Hiru urte eta erdi dauzkat aurretik, ikusteko nola moldatzen naizen"

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Pasa den urteko abenduaren 20tik, alkate berria dauka Lasarte-Oriak: Agustín Valdivia (Lasarte-Oria, 1973) sozialista. Arkitektoa ofizioz, lau urte eta erdi inguru daramatza lanean udalean; Hirigintza batzordeburua izan zen aurreko legealdian, eta errepikatzeke asmoz hasi zuen 2019-2023koa, Jesus Zaballosek -PSE-EE- dimisioa eman eta alkate izateko ardura berak hartu duen arte. "Ardura ariketa bat egin dut kargu hau onartzean".

## Abenduaren 20ko inbestidura saioan hartu zenuen alkate kargua. Nola doaz lehenengo asteak?

Ongi etorri zaizkit Eguberriak, hartu berri dudan ardurari neurria hartzen hasteko. Dena den, azkeneko hilabeteetan Lourdes Acevedo eta bion artean egin dugu kudeaketa; Jesus Zaballosek urriaren 16an hartu zuen baja. Aldaketa handia izan da niretzat; Hirigintza batzordea kudeatzeetik alkate izatera... Orain alor askoz gehiago kudeatu behar ditut, oso desberdinak: herritar batekin biltzen naiz, gero kontu-hartzailearekin aurrekontuei buruz hitz egin... Egokitzen ari naiz oraindik, baina ilusio askorekin ari naiz lanean.

Udaleko sail desberdinetako buruekin hitz egin dut, udal korporazioko alderdi politikoekin ere bai... Eskertu nahi diet egin didaten harrera ona. Jende askok ere zoriondu nau kaletik, eta honakoa esan: 'Alkate postua da administrazioko okerrena; egurra emango dizute handik eta hemendik'. Egia da hori, baina

balantzan gehiago pisatzen du norberaren lanaren onurak herrian islatuta ikustea. Saiatuko naiz erabakietan asmatzen, eta inor ez kaltetzen. Ohorea da herriko alkate izatea. Kaleetatik paseatu nahi dut eta kontzientzia lasai eduki, egindako lana herritarrentzat ona izan delako. Helburu pertsonal bat da hori.

## Nola eta zergatik murgildu zinen politikagintzan?

Txikitatik eduki dut bokazioa zerbitzu publikoetan lan egiteko; nire familiako hainbat kidek lan egin dute administrazio publikoan.

Bestalde, kasualitate kumulu bat izan da: Eusko Legebiltzarrerara joan nintzen behin emaztearekin, bisitan; orduan ezagutu nuen Jesus Zaballos. Apurka-apurka estutu genuen harremana, PSE-EEren 2015eko zerrendetan joatea proposatu zidan arte, hirugarren postuan, Hirigintza batzordea kudeatzeko ardurarekin. Alderdi sozialistaren emaitzetan hondamendirik egon ezean, banekien udaletxera sartuko nintzela lanera. Pentsatu nuen modu aproposa izan zitekeela alor publikoan lan egiteko, txikitatik eduki dudana grina horri jarraituz.

## Ezuste harrapatu zintuen alkate izateko proposamenak? Berehala esan zenuen baietz?

**"GAUZA BAT ARGI DAUKAT: BERRITU EGIN BEHAR DUGU UDALAREN JARDUNA, ETXE BARRUTIK"**

Sorpresa handia izan da guztiontzat: uste genuen Jesus [Zaballos] lanera bueltatuko zela baja eta gero. Berak dimisioa aurkeztu -abenduaren 12an- baino bi aste lehenago egin zigun proposamena, Lourdes Acevedori aurrena, eta niri gero. Lourdesek argi zeukan berak ezin zuela alkate izan, eta nik egin nuen urratsa, ongi pentsatu eta familiarekin hitz egin ostan. Ardura ariketa bat egin dut.

## Nola berregituratu duzue Udal Gobernu taldea?

Hirigintza batzordeko buru izaten nik jarraituko dut, eta Jesus Zaballosen saila, Ogasuna, nik kudeatuko dut hemendik aurrera, Alkatetzaz gain. Denborak esango du ardura gehiegi hartu ote ditudan edo ez; egia esan, orain arte eraman dudana batzordeak era autonomoan lan egiten du sailburu berria lanean hasi denetik, eta ez dut uneoro gainean egon behar. Gainontzeko zinegotziek jarraituko dute euren batzordeak kudeatzen, eta zerrendako hurrengo kidea, Iñigo Zabaleta, sartuko da taldean, baina zinegotzigorik gabe. Zerbitzuetako buru David Mateos izendatu dut bigarren alkateorde. Horiek dira aldatetako. Baliteke gehiago egotea.

**Inbestidura saioan aipatu zenuen "asko" ikasi duzula urteotan aurreko alkatearengandik. Bere kudeaketa ereduarekin segiko duzu?**  
Jesus Zaballos da nire erreferentia. Kontinuista izango naiz politika egiteko zeukan moduarekin: akordiotara iristen saiatu alderdi politiko desberdinekin, gertukoa izan herriko eragile eta

elkarteekin, parte-hartzea sustatu... Saiatuko naiz alor horiek are gehiago indartzen, ahal bada. Gustatuko litzaidake nire ideiak eta estiloa aplikatzen hastea, baina oraindik ez dakit oso ongi zein den; duela gutxi hartu dut alkate izateko ardura.

## Horretarako prest zaudela uste duzu?

Askok daukat ikasteko, baina uste dut gai izan naitekeela ardura hori hartzeko. Hiru urte eta erdi dauzkat aurretik ikusteko ea nola moldatzen naizen, gustatzen zaidan ala ez, zer nolako lana egin dugun... Nahiko nuke herritarrek ni beste lasarteoriatar baten moduan ikustea. Herrian egiten dut nik bizitza: hemen bizi naiz, hemen dauzkat familia eta lagunak, parte hartzen dut ekimen askotan...

## Astehenean gidatu zenuen udalbatzar saioa, aurrenekoz.

Beste esperientzia bat. Pertsonalki, une batzuetan desordena sentsazio apur bat izan nuen, baina jakina, Jesus Zaballos oso trebea zen horretan. Trebatuko naiz horretan ere. Galdera eta erreguen txandan batzorde bakoitzeko buruari eman nahi diot aukera erantzuteko.

## Gaztelaniaz jardun zinen nagusiki; hitzartze txanda batzuk ematerakoan erabili zenuen euskara.

Legealdi honetarako daukadan beste erronka pertsonal bat da euskara maila hobetzearena. 1.

**"LAU URTERA BEGIRA ARI GARA PRESTATZEN AURREKONTUA; EPE HORRETAN BANATUKO DITUGU INBERTSIOAK"**



Agustín Valdivia, udaletxean daukan bulego

profila daukat orain; nahiko nuke iritsi 2. mailara, denbora baldin badaukat. Herritarrek euskaraz zein gaztelaniaz komunika daitezke nirekin, *belarriprest* naiz, baina nire euskara maila hobetu nahi dut. Plenoetan, hori bai, interbentzio baten detaile bakar bat ere galdu nahi ez dudanean, itzulpen zerbitzua erabiltzen jarraituko dut.

## Erronka pertsonalak badauzkazu. Eta alkate bezala?

Aste gutxi daramatzat karguan, baina argi daukat gauza bat: berritu egin behar dugu udalaren jarduna, etxe barrukoa. Ez da posible eraikina XXI. mendekoa izatea, modernoa, baina, funtzionamendua, aurreko mendekoa. Ikerketa bat egingo dugu antolaketari buruz: HAZ Herritarren Arreta Zerbitzua izeneko sistema ezarri nahi dugu. Administrazio elektronikoa ere bai, herritarrek horrenbeste paperen artean gal ez daitezten.

## Aurtengo aurrekontua prestatzen ari zarete? Nola doaz negoziaketak?

Uste dut atzeratu egingo dela 2020. urteko aurrekontuen onarpena. Legealdi honetan inbertsio oso altuak egingo ditugu kirol azpiegiturretan: kiroldegi berria Michelinen eta kirol gunea Atsoabarren. Hemezortzi milioi euro, guztira. Horrenbeste diru, urtean 25 milioi inguruko aurrekontua eduki ohi duen udal





berrian. Bertan egin zion harrera TXINTXARRI aldizkariari, astearte eguerdian. TXINTXARRI

batean, non urtero lauzpabost milioi baino gehiago inbertsioetara bideratu ezin dituzun... Lau urtera begirako plangintza bat egiten ari gara, legealdian egingo ditugun inbertsioak aurreikusiz eta dirukopurua urte horietako bakoitzean banatuz. Kontu-hartzailea zirriborroa prestatzen ari da. Ikusiko dugu nola egin daitekeen. Aurrekontua epe horretara begira prestatzearekin batera diseinatuko dugu legealdi plana. Lehentasuna kirol azpiegiturek daukate agintaldi honetan, baina ez ditugu egin gabe utziko aurreikusita ditugun gainontzeko inbertsioak. **Zeintzuk dira inbertsio horiek?** Udalerrri osoko argiteria aldatuko dugu, LEDak jarritz. Bi milioi

euro inguruko inbertsioa izango da hori. Horrez gain, kultur arloko elkarrekin eragileekin hitzarmenak sinatuko ditugu; lau urterako akordioak izango dira. Herriko ikastetxeetan konponketa-lanak egingo ditugu.

Erribera kaleko etxabeak eraitsi eta berrurbanizatuko ditugu, eta Zumaburuko parkearekin lotu, pasarela baten bidez; Jaizkibel plazan falta diren hiru etxabeak bota eta berrurbanizatu; bi igogailu egingo ditugu: Zabaletan bat, eta Kale Nagusian bestea, DIA supermerkatu parean, Goikaleraino joango dena; Isla plaza estaliko dugu; herriko etxebizitzak egokitu beharko ditugu ingurugiro lege berrira...

Aurrekontua diseinatzean ikusiko dugu aurreikusitako inbertsio guztiak egin ditzakegun, eta noiz. **HAPO Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra egingo duzue. Zertan datza plan horrek?**

Hirigintza batzordearen erronka handiena da. Legealdi honetan onartzea nahiko nuke, 2004an onartu ziren Arau Subsidiarioak egokitu egin behar ditugulako. Indarrean dauden Lurraren Legera, Lurralde Plan Partzialera eta Lurralde Antolamenduarien Gidalerroetara doitu behar dugu. Batez ere berritze ariketa bat izango da, ez dugu lursail berririk kolonizatuko plan horretan. 2004ko arauetan jasota dator Kotxerako eremua bizitegi-auzo bihurtzea;

hori gauzatzean, 20.000 biztanle ingurura iristea aurreikusten dugu, eta uste dugu ezin dugula are gehiago hazi, gaur egun ditugun zerbitzu eta hornidurek ez luketelako gehiagorako emango.

Lantaldea plan horren aurrerapena prestatzen ari da. Uste dut onartu ahalko dugula HAPO plana, zailtasun askorik gabe, ez daudelako eztabaidatzeko puntu gehiegi. Herriarrek parte hartzeko programa bat prestatzen ari gara; gainontzeko alderdiek komisioan egindako ekarpen batzuk ere sartuko ditugu.

**Herritar askok parte hartzen dute gisa horretako prozesuetan? Nola susta daiteke hori?**

Prozesu motaren eta egitasmoaren arabera izan ohi da. Iruditzen zait, eta ez udalerrri honetan bakarrik, parte-hartze kultura falta dela, oro har. Hori esanda, uste dut buelta bat eman behar diogula herritarrengana iristeko moduari. Nire esperientziatik, esan dezaket bizilagunek parte hartzen dutela euren errutinan eragina duten egitasmoetan. Gu saiatzen gara haien proposamenak jasotzen; hori ikusten badute, nik uste parte hartzera gehiago anima daitezkeela.

**Ikasturte hasieratik itxita dago Landaberri ikastolara igotzeko aldapa. Abenduak udalbatzarrean zenbait neurri onartu ziren; tartean, konpontze-lanen lizitazioa aurtengo aurrekontu egitasmoan sartzea.**

Hori sartuko dugu, ziur. 2019ko aurrekontuetako diru-partida bat erabili dugu proiektua enkargatzeko. Aurtengoan, lizitazioa sartuko dugu. Ikusiko dugu noizko dauzkagun prest; horrek markatuko ditu epeak. Ondo bidean, nik uste posible litzatekeela lanak aurtengo udan hastea, baina datak alda daitezke.

Kontuan hartuta konponketa gehiago egin behar ditugula, udan hasita ere, ez genuke ikasturte hasierarako bukatuko. Zentroarekin eta udal teknikariekin hitz egingo dugu, obren kronograma egiteko.

**'Oriaren gainean' egitasmoak irabazi du kiroldegi berriko lehiaketa.**

Dokumentazioa bidali behar digu Sabai Arkitektoak enpresak, kontratua sinatzeko. Ondoren, urrira arteko epea emango diegu proiektua egiteko.

**Atsotarako egitasmoa nola dago?**

Usurbilgo Udalak berriki onartu du bere lur-eremuetan lanak hasteko beharrezko aldaketak egitea Antolamendu Xehatueta. Sestra enpresari enkargatu genion exekuzio proiektua egiteko, baina itxaroteko esan genion, aipatu aldaketa horiek egin arte. Ziur aski, kiroldegi berriko exekuzio proiektua baino lehenago iritsiko da Atsotarako; baliteke bi guneetako lanek bat egitea; ikusiko dugu epeak nola doazen.

**Kirol instalazioekin gertatu bezala, uste duzu kultur azpiegiturak bikiak eta zaharkituak geratu direla?**

Hori izango da beste erronketako bat etorkizunean, baina ez legealdi honetan: kirol azpiegitura bideratzerakoan helduko zaio kultur instalazioenari. Argi dago Manuel Lekuona Kultur Etxeak mugak dauzkala; eraikina antolatzeke planteamendua zaharra da. Kultura egiteko moduak asko aldatu dira.

**Erraustegia probaldi fasean dago; zaborra erretzen hasi da.**

Zaintza-lana egitea dagokio udalari; airearen kalitatearen neurketa estazioa daukagu horretarako. Momentuz, datuek diote airearen kalitatea ona edo oso ona dela, segun eta urteko zein garaitan gauden.

**MATRIKULAZIO  
EPEA ZABALIK**

**ESKA EZAZU  
BISITA GIDATUA**

943 21 23 07  
www.jesuitinasdonostia.es



**KONPROMISOZ SORTZEN DUGU  
AUTONOMIAZ  
BIZI NAHI DUGUN ETORKIZUNA**

Autobus zerbitzua Lasartetik.



# Añorga KKEk, igoera amets eta helburu

Denboraldi aparta egiten ari da talde gipuzkoarra 1. Nazional mailan: 42 puntutik 31 bildu ditu. Kideetako batzuk herritarrak dira: Izaskun San Aniceto eta Ainara del Olmo, jokalaria; entrenatzaile taldean, berriz, Javi Solchaga, Julen Ormazabal eta Jon Presa

## Iñigo Gonzalez Sarobe

"Denboraldi hasieratik daukagu buruan mailaz igotzea; ikusiko dugu lortzen dugun edo ez". Javi Solchagaren hitzak dira, 1. Nazional mailan lehian ari den Añorga KKEren entrenatzailearenak (Lasarte-Oria, 1989). Partida asko geratzen dira oraindik, baina momentuz ez dira batere gaizki ari gipuzkoarrak: 42 puntutik 31 bildu dituzte, eta sailkapeneko bigarren postuan dira. "Berregituratu egin dituzte kategoriak aurten", azaldu du Solchagak. "Osasuna, Alaves, Eibar eta Athletic 2. mailan ari dira aurten; bosgarren geratu ginen iaz; nik esan ohi dudana bezala, gure ligako lehenengoak".

Bizkerre FT bizkaitarren erritmoari eusten dion talde bakarra da Añorga. Elkarren aurka jokatu dute asteburuan, Getxon. 3-0 irabazi du etxeko taldeak. Hala ere, sailkapenean ez du horrenbesteko eraginik izan; hiru puntura geratu da



Talde-giro aparta da Añorgaren ezaugarrietako bat. JAVI SOLCHAGA

Añorga. Igande honetan, hilak 19, Aurrera de Vitoriarekin neurtuko dituzte indarrak gipuzkoarrek, Rezolan, 18:00etan.

Futbolearen aritzen diren ia guztiak ezagutzen dute Añorgaren futbol zelaia. Estua da, berezia,

eta zaila da hiru puntuak urratzea han. Egia da bi neurketa galdu dituztela aurten, baina irabazi egin dituzte beste guztiak. Eta nola gainera: 7-0, 5-0, 3-0, 2-0... Gol asko sartu, eta oso gutxi jaso. Hori da Añorgaren martxa

onaren gakoetako bat. 37 gol alde, eta hamabi kontra. Ligako bigarren talde onena da defentsiboki. "Jokalaria oso langileak dira; guztiak egiten dute defentsako lana", aipatu du Solchaga entrenatzaileak.

Rezolan zein gainontzeko taldeen zelaian, maila oso ona ematen ari da Añorga. "Etxeko partidak ikusgarriak dira: aukera asko, baloi eta aldaratze asko areatan, golak... Jende ugari etortzen da gu ikustera". Etxetik kanpo aldatu egiten dute jokostiloa, baina, Solchagak zehaztu duenez, futbolariak "ederki" moldatzen dira. "Ezaugarri on eta desberdin asko daukate jokalariek, eta horrek asko ematen digu partidetan".

## Lasarteoriatar ugari

Añorga taldeko bost kide herritarrak dira. Zelai barruan aritzen dira Izaskun San Aniceto aurrelaria eta Ainara del Olmo erdilaria; kanpoan, berriz, Javi Solchaga eta Julen Ormazabal entrenatzaileak eta Jon Presa prestatzaile fisikoa.

"Izaskun da esperientzia gehien daukan jokalarietako bat; gainera, gol asko egiten ditu. Aurten, oraingo, hamalau", zehaztu du Solchagak. Del Olmo aurten igo da taldera, eta, entrenatzailearen hitzetan, "segituan" hartu dio neurria 1. Nazional mailari. "Minutu asko ari da jokatzen, maila ona erakutsiz". Hamasei urteko erdilaria ez da taldeko

gaztetxo bakarra; beste seik egin dute jauzia aurten. "Jokalarien %80ak hogeitau urte baino gutxiago dauka", aipatu du Solchagak. Hala ere, primeran ari dira denak, sailkapenak erakusten duenez.

Entrenatzaile taldeak ere badu meritua horretan. Hiru urte daramatza Solchagak taldean. "Lehenengo urtean aldaketa asko egon ziren; gure lehenetasuna izan zen talde-giro ona eta batasuna sortzea; bigarren urtetik aurrera hasi ginen konpetizioan foku gehiago jartzen". Bi ezaugarri horiek uztartzea lortu dute: beti gogor konpetitzeko gai izatea, eta taldeko giroa ezin hobea izatea. "Oso ongi moldatzen gara guztiok, zelaitik kanpo planak egiten ditugu, baina, era berean, argi dauka bakoitzak zein den bere rola taldean". Solchagak dio "oso-oso gustura" ari dela taldean. "Jokalariek sinesten dute jokostiloa eta planteatzen ditugun sistemetan; gakoetako bat da hori".

Hamazazpi urterekin hasi zen entrenatzen Solchaga. Hamar urtez, herrian, Ostadar SKTn; duela hiru jaso zuen Añorgaren deia. "Uztekotan nenbilen, hara joatea proposatu zidatenean; erabaki bikaina hartu nuen".

## AÑORGAK 37 GOL SARTU DITU AURTEN, ETA HAMABI JASO; LIGAKO TALDERIK GOLEGILENA DA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONALA</b>
<b>Leintz Arizmendi KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:30. Mojategi, Arrasaten.
<b>ERREGIONALEN GORENGOA</b>
<b>Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa</b> Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
<b>JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Ostadar SKT A - Añorga KKE</b> Igandea. 17:00. Michelin kirol gunean.
<b>JUBENILEN 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Kostkas KE - Ostadar SKT B</b> Igandea. 13:00. Matigoxotegi, Donostian.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Tolosa CF</b> Larunbata. 15:45. Michelin kirol gunean.
<b>KADETEEN 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Urnieta KE A - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 17:00. Urnietan.
<b>Ostadar SKT A - Danena KE B</b> Larunbata. 12:45. Michelin kirol gunean.
<b>Euskalduna SD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:30. Ubitarte, Andoainan.

<b>INFANTILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Danena KE</b> Larunbata. 14:15. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTIL TXIKIA, SAILKATZE FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Urnieta KE</b> Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTILEN 1. MAILA</b>
<b>Texas Lasarteerra CF - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.
<b>Ostadar SKT B - Udarregi Usurbil FT A</b> Igandea. 15:30. Michelin kirol gunean.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>SENIORRAK, 1. MAILA</b>
<b>Eguzki Aldaz H.K. - Egintza KE Egarri</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
<b>SW Eskoriatza KE - Eguzki Garoa taberna</b> Igandea. 11:30. Manuel Muñoz kir., Eskoriatzan
<b>SENIOR 2. MAILA</b>
<b>Ostiko Sindikato - Eguzki ISU Leihoak</b> Larunbata. 19:00. Beraun pil., Errenteria.
<b>JUBENILAK</b>
<b>Eguzki 2KN - Erain</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kir.

<b>Zarautz KE - Eguzki Balerdi Harategia</b> Larunbata. 12:45. Antoniano kir., Zarautzen.
<b>HERRIKO TXAPELKETA</b>
<b>Viña del Mar - Bar Buenetxea</b> Larunbata. 09:15. Michelin kirol gunean.
<b>Patricio Coctel Bar - Trumoi Taberna</b> Larunbata. 10:15. Michelin kirol gunean.
<b>Insauti - Avenida FT</b> Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.
<b>Asador Irigoien - Garoa Taberna</b> Larunbata. 12:15. Michelin kirol gunean.
<b>SASKIBALOIA</b>
<b>SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA</b>
<b>Eskoriatza - Ostadar SKT</b> Ostirala. 20:15. Manuel Muñoz kir., Eskoriatzan
<b>SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA</b>
<b>Zarautz Zast ZKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 20:30. Antoniano kir., Zarautzen.
<b>JUNIOR ERRENDIMENDU</b>
<b>Easo Univ. de Deusto - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Paco Yoldi kir., Donostian.
<b>JUNIOR PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Petritegi Mundarro KE</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Goierri Buen Bocado</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
<b>INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Oiarzungo</b> Saskilagunak SKT Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kir.
<b>PILOTA</b>
<b>PROFESIONALA, PROMOZIOA, BINAKAKOA</b>
<b>Arteaga II eta Urretbizkaia II - Alberdi eta Salaverri</b> Ostirala. 20:00. Buñuel, Nafarroan (lehen partida).
<b>1. MAILAKO INFANTILA</b>
<b>Gazteleku 1 - Intza</b> Ostirala. 18:30. Usarrabi, Asteasun. (bigarren partida)
<b>2. MAILAKO INFANTILA</b>
<b>Intza - Hernani 3</b> Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Babyauto Zarautz - Kaleido</b> Universidade Vigo RC Igandea. 12:00. As Lagoas, Vigon.

<b>18 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>Babyauto Zarautz/Beltzak - Elorrio RT</b> Larunbata. 11:00. Asti, Zarautzen.
<b>BOLEBOLA</b>
<b>SENIOR MAILA</b>
<b>Hernani KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Hernaniko kiroldegian.
<b>IGERIKETA</b>
<b>EUSKADIKO TXAPELKETA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo infantilek, juniorrek eta absolutuek distantzia luzeko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.</b> Larunbata. 10:00. Maialen Chourraut kir.
<b>ALEBINEN LIGA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo alebinak Ligako 4. jardunaldian lehiatuko dira.</b> Larunbata. 18:00. Usabal kir., Tolosan.
<b>KZL/TEST LIGA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo benjaminek Ligako 2. jardunaldian parte hartuko dute.</b> Larunbata. 15:30. Usabal kir., Tolosan.



# Txirrindulari gazteak fin Gipuzkoako txapelketan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Asier Pozok pistako Gipuzkoako maillota jantzi du; Haimar Etxeberriak eta Daniel Fursencok brontzeko postua eskuratu dute. Gipuzkoako pistako denboraldia amaitzean da; egutegian bi jardunaldi geratzen dira

## Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideak pistako denboraldiari agur esango diote aurki. Azarotik Bio Racer-Oiartzun Bike sarian ari dira lehian. Hainbat probatan lehen postuetan izan dira, baina sailkapen orokorrean ez dira nabarmendu. Gipuzkoako Txapelketan, berriz, lan paregabea egin dute. Lau txirrindularitza hiruk podiuma zapaldu dute. Asier Pozo Gipuzkoako txapeldun izan da junior mailan eta Haimar Etxeberria eta Daniel Fursencok hirugarren amaitu dute txapelketa, bakoitzak bere mailan. Horiez gain, Adur Tapia gazteak ere parte hartu du kadete mailan eta zortzigarren izan da.

Urtarrilaren 12an, Donostiako Antonio Elorza belodromoan jokatu zen txapelketa. Txirrindulari gazteek lau proba gainditu behar izan zituzten Gipuzkoako onenen artean egoteko: *scratch*, *tempo*, kanporaketa eta puntuazioa.

Asier Pozo eta Haimar Etxeberria juniorrek ez zuten hasiera ona izan. Lehen proban, *scratch*-ean zazpigarren eta zortzigarren izan ziren, hurrenez hurren.

*Tempo* eta kanporaketa probetan lortutako emaitzek ordea



Etxeberria, Pozo, Fursenco eta Tapia sari banaketaren ostean. BURUNTZAZPI TX. E.

sailkapeneko lehen postuetara eramane zituen. Pozo bi lasterketetan garaile izan zen; Etxeberria, berriz, *tempo* proba hirugarren postuan amaitu zuen eta, kanporaketa proba, bigarren.

Azken proban, puntuazioan ez zuten asko jokoan. Honela, Pozo bosgarren izan zen eta Etxeberria zazpigarren. Kadete mailan, Daniel Fursencok eta Adur Tapiak parte hartu zuten.

Azpimarratzekoa da *scratch* proban ederki ibili zirela biak. Fursencok bigarren amaitu zuen proba eta Tapia bosgarren izan zen. Gainerako probetan, lehen

hamarren artean ibili zen Fursenco. Zazpigarren izan zen *tempo* proban, bosgarren kanporaketa proban eta seigarren puntuazioan. Tapiak hamabigarren amaitu zuen *tempo* proba, kanporaketa proban bederatzigarren izan zen eta puntuazioan, hogeigarren.

Gipuzkoako pista egutegian bi asteburu geratzen dira denboraldiari amaiera emateko. Igande honetan Bio Racer-Oiartzun Bike sariko azken jardunaldia jokatu da eta urtarrilaren 26an, Gipuzkoako Kopako bigarren jardunaldia.



Mele ugari egin zituzten bi taldeetako jokalariek, larunbateko norgehiagokan. TXINTXARRI

## Igoera fasea jokatzen sailkatu da Babyauto ZRT Beltzak

Iruña RC bigarren sailkatua hartu du Michelinen, eta, partida bikaina jokatuta, 27-7 irabazi du

### Txintxarri

Babyauto ZRT Beltzak-Iruña RC. Maila eta emozio handiko neurketa Michelinen. Kirol gune horretara gerturatu ziren zaleek gogotik gozatu zuten bi taldeen jokaldi, entsegu eta meleen. Hobeto ekin zioten partidari nafarrek: entsegu eginda eta transformazio jaurtiketa zutoin artean sartuta, 0-7 aurreratu ziren markagailuan. Orduan esnatu zen lozorrotik talde zarautarra: erabat ito zituen Iruña RCko jokalaria, euren zelaitik atera ezinik. Gorka Aristondo lasarteoriarrak egin zuen entsegu hamabigarren minutuan, eta Iker Etxanizek transformatu. Handik gutxira aurreratu zen markagailuan ZRT Beltzak, Ander Rekondo herriarraren entseguari esker.

Ez zen lehen zatiko azken jokaldi ederra izan: baloia azkar mugitu ostean, Ritxar Yurramendik

–lasarteoriatarra bera ere– hautsi zuen nafarren defentsa-lerroa. Atsedendian, 19-7.

Bigarren zatian emaitzari buelta ematen saiatu zen Iruña, baina ez zuen lortu, ZRT Beltzak tinko aritu zelako defentsan, zirrikiturik utzi gabe. 67. minutuan, gainera, areagotu egin zuen bi taldeen arteko aldea: Iker Etxanizek zigor-kolpe bikaina jaurti eta 22-7koa jarri zuen markagailuan. Julen Zulaika zarautzarrak entsegu egin zuen ondoren. Azkenean, 27-7.

Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldeak 27na berdindu zuen Ourenseren aurka, Galizian. Zarautzarrak aritu zen Adrian Apaolaza herriarra. Bestalde, Alex Saleta 20 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin ari da entrenatzen, Valladoliden. 10 eta 12 urtez azpiko gazteek Michelinen entrenatuko dute, 10:15etik aurrera, 13:00ak arte. Hirugarren denbora egingo dute gero.



# Zozketa!

## Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Eskuz egindako **BI KOADERNO** zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean. Eskuz eta betez ere **MimoZ** egindako **kuaderno txiki eta handi** bat eskura ditzakezu. Eman izena urtarrilaren 27a baino lehen.



mimozkoadernaketa

harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)



# Euskal Liga, ametsa egia bihurtu da kadeteentzat

Ostadar SKTko Kadete Errendimendu taldeak lauko finalean Euskal Ligarako txartela lortu du. Goierri Oxylor taldearekin batera mailaz igoko da. Dagokion multzoa erabakitzeke Arabako eta Bizkaiko taldeen aurka lauko final bat jokatu beharko du

## Txintxarri

Otsailetik aurrera Euskal Ligan lehiatuko da Ostadar SKTko kadete errendimendu taldea. Lehengo asteburuan, urtarrilaren 11n eta 12an, kadete mailako lauko finalean lortu zuen maila iguera Jonatan Reinoren taldeak, finalera sailkatu ostean.

Hirugarren postuan amaitu zuen Ostadar SKTren kadete errendimendu taldeak fase erregularreko lehen itzulia eta Goierri Oxynor, BKL Esparru eta Easo Lorea Gourmet taldeekin batera Lauko finala jokatu zuen, Urretxuko Aldiri kiroldegian.

Ezustekean sailkatu zen kadete talde lauko final honetarako. "Ikasteko eta taldea garatzeko denboraldia aurreikusten genuen. Gure helburua maila mantentzea zen. Baina egoerek gure alde egin eta Euskal Ligarako atea ireki zen", azaldu du Jonatan Reino entrenatzaileak.

Horregatik, Urretxun jokatu eta lehiaketa ospakizun bat da kadete taldearentzat. "Guk ere ez genuen bertan egotea espero. Gure helburua, beraz, ondo baino hobeto bete genuen".

Lauko finala taldearentzat esperientzia berria izan dela azpimarratu du. "Dena zen berria: Euskal Ligako arauak, taldeen aurkezpena edo jendez betetako harmaila". Eta txapelketan taldeak izandako babesa ere aipatu du. "Goierri, etxeko taldeko jarraitzaileez gain, Lasarte-Oriatik autobus bat joan zen larunbatean, eta harmaila bandera urdin-beltzez bete zen".

## Igoera lortu

Easo Lorea Gourmeten aurka jokatu zuen finalaurrekoa Lasarte-Oriako taldeak. Partida hasi baino lehen minutuko isilunea izan zen Easo taldeko kide baten senitarteko baten heriotza zela-eta.

Jokalarien urduritasunaren beldur, "ligan partida batzuk galdu



Kadete errendimenduko jokariak, Goierri Oxylor taldearen aurkako finalean. OSTADAR SASKIBALOI

genituen horregatik"; Reinok azken bi asteetan kadeteekin lan zorrotza egin zuen arlo horretan eta neskek harritu zutela onartu du. "Adore eta motibazio handiarekin atera ziren jokatzera. Eta hasierako gure aldeko 0-10ak partida irabaztera atera zirela erakutsi zuen".

Lehen, bigarren eta hirugarren laurdenetan nagusi izan zen Ostadar SKT. "Guztia ongi ateratzen zitzairen jokalariei, baina ezin ginen fio. Ligan azken laurdenean 14gatik galtzen zihoala buelta eman zion Easok partidari".

Zorionez jokalariek ongi erantzun zuten eta 0-8 partzialarekin partida erabaki zuten. Aurreikuspen guztien aurka sailkatutako taldeak faboritoetako bat garaitu zuen, 32-58. Goierriren aurka jokatu zuten finala eta Euskal Ligarako txartela ere bazuten eskuan.

Etxeko taldeak ez zuen Ligako porrota berriro jasan nahi finalean eta Ostadar SKT ere garaipena zuen buruan. Bi taldeak ongi jokatu defentsa igarotzen zuten

**"HELBURUA MAILA MANTENTZEA ZEN. EGOEREK GURE ALDE EGIN ETA IGOERARAKO ATEA IREKI ZEN"**

eta lehen laurdenean 17-19 amaitu zuen urdin-beltzen alde.

Bigarren zatia, ordea, bestelakoa izan zen. Bi taldeek defentsa indartu eta partida trabatu zen. Asteburuko sentipenek eta bizipenek gain egin zieten Lasarte-Oriako jokalariei eta urduritasuna agertu zen. Hortaz baliatu zen Goierri 13-4ko partziala egin eta Ostadar SKTri finala zailtzeko.

Kadete urdin-beltza partida iraultzen saiatu zen gogoz, Goierri, ordea, tinko mantendu zen. Azken laurdenean, Ostadar SKTko jokalariek ezin izan zuten Goierri eutsi eta etxeko taldeak garaipena erdietsi zuen, 59-45.

"Emaitzak ez du taldeak denboraldian eta lauko finalean egindako lana lausotu. Pozarren nago jokalariek egindako lanarekin. Nik jaso ditut fruituak, baina jokalarien eta haien garapenean eragin duten entrenatzaileen meritua da lortutakoa", adierazi du Reinok, pozik.

Euskal Ligako denboraldia hasi baino lehen, ordea, Bizkaiko eta Arabako taldeen aurkako lauko final bat jokatu beharko du Ostadar SKT. Bilbon lehiatuko da, urtarrilaren 25ean eta 26an eta horren bitartez, kadete taldeak Euskal Ligako zein multzotan jokatu duen jakingo du, A1 edo A2.

## Anabitarte, Euskadiko txapelkun

Hitzordu garrantzitsuak izan zituzten ere Aitor Anabitarte eta Eñaut Buiza herritarrek urtarrileko lehen asteburuan. Anabitartek junior mailako Euskadi eta Nafarroaren arteko txapelketan lehiatu zen



Anabitarte, txapelketako trofeoa eskutan.

NAFARROAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

Gipuzkoako selekzioarekin eta garaikurra jaso zuen; Buizak, berriz, kadete mailako Espainiako txapelketa jokatu zuen Euskadiko selekzioarekin, Huelvan. Biek jokatzen dute Donostiako Easo taldean eta denboraldi hasiera ona egiten ari dira bakoitza bere mailan.

Urtarrilaren 4an, Aitor Anabitarte Euskadi eta Nafarroaren arteko txapelketako finala jokatu zuen, Oliten. Bizkaia izan zuen Gipuzkoak aurrez aurre eta garaile izan zen, 78-65. Partida hasieratik aurre hartu zuen Gipuzkoak eta hogeitun puntu tartea ere izan zuten momenturen batean. Anabitarte jokalarionen artean izan zen, zazpi puntu eta zazpi erboterekin.

Egun bat lehenago ere garrantzitsua izan zen Anabitarteren jarduna, Arabaren aurkako norgehiagokan. Gipuzkoak 95-55 irabazi zuen eta lasarteoriarrak hamabost puntu egin eta bederatzi erbote jaso zituen.

Huelvan, ordea, Eñaut Buizarentzat ez ziren gauzak hain errazak izan. Multzo indartsuari aurre egin behar izan zion Euskadiko selekzioak. Nahiz eta ederki borrokatu, Buiza eta bere taldekideek ez zuten partidarik irabazi lehen fasean. Zortzigarren postua lortu zuten, Kantabria 61-74 garaitu ostean.



Manex Pagola defentsa lanetan, txapelketako partida batean. FEDDF

## Dominak ihes egin dio Pagolari

Ostadar Inklusioa ataleko Manex Pagola gazteak eskola arteko gurgildun aulkiko Espainiako txapelketa jokatu zuen, urtarrilaren 10etik 12ra, Villanueva de la Cañadan (Madrid). Laugarren izan da Euskadiko selekzioa.

Pagolak eta bere kideek Andaluzia izan zuten lehen aurkari. Erraz aurre egin zioten eta 41-12 irabazi zuten. Madrid eta Kataluniaren aurkako partidak bestelakoak izan ziren, ordea. Lurralde horietako taldeek txapelketako finalean egotea zuten helburu eta argi utzi zuten Euskadiren aurka jokatu txapelketako partidetan. Hasieratik markagailuan aurre hartu zuten eta ez zioten Euskadiri aukerarik eman. Azpimarratzekoa da, Madrilaren aurkako partidaren Pagola jokalarionen artean izan zela, sei puntu eta sei erbote jaso.

Markagailu horiei esker, hirugarren postua jokatzeko sailkatu zuen Euskadi. Aurrez aurre Aragoi izan zuen. Partida borrokatua azken minutuan erabaki zuen. Euskadik berdinketa lortzeko aukera izan zuen, 26-24, baina baloia ez zen saskian sartu.




## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Aratz**  
Zorionak zure 10. urtebetetzean! Urte zoriontsua izan dezazun eta gozatzan jarraitu. Muxu pila aita, ama eta Aiurren partetik. Asko maite zaitugu :)



**Beñat**  
Zorionak pottoko! 3 urte hauek zoragarriak izan dira! Asko maite zaitugu! Segi gure bizitzak alaitzen. Muxuak familia osoaren partetik.



**Gorka**  
Zorionak Gorka! Urtarrilak 19an hiru urte! Handitzen handitzen... Muxu handi bat familiaren partetik!



**Uxue**  
Parabéns Uxita! Egun polit-politta pasa dezazula, eta urte ederra izan dadila! Laster arte, bonbon! Muuuuaakkk!



**Ander**  
Zorionak, errugbilari! Bultzaka bultzaka iritsi zara aurtengo entsegura e! 25 besarkada estu, Ttakuneko lankideen partez!

## AKATSAK ZUZENTZEN


Udal Liburutegiko ordutegiaren berri eman genuen, lehenago sotiralean Txintxarriko 1489. zenbakian.

Liburutegiko irekiera data eta ordutegiak eskaini genituen albistean. Akatsa zegoen ordea, indarrean dagoen ordutegian. Astelehenetik larunbatera 9:00etan irekitzen duela adierazi genuen, baina 9:30ean da irekiera ordua.


Ordutegia beraz, honakoa da, astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 20:30era; larunbatetan, berriz, goizez bakarrik dago irekia, 9:30etik 13:00etara.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 17



Larunbata, 18




Igandea, 19




Astelehena, 20



Asteartea, 21



Asteazkena, 22



Osteguna, 23



## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

1	6				5	4	9	
5	2		9			6	8	
		9	6	1				
			8		1	2		9
			7		9			4
9		6		4				1
2	3				7		5	6
7	8		5	9				
6	9	5				7	4	

## JAIOTAKOAK

**Nora Elustondo Sanchez.** Urtarrilaren 15ean.  
**Xabi Castro Sanz.** Urtarrilaren 12an.

## HILDAKOAK

**Manuel Fernandez Rivera.** Urtarrilaren 14an.  
**Edurne Zabala Bilbao.** Urtarrilaren 11n.  
**Guillermo Rico Hernandez.** Urtarrilaren 10ean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 17 URBISTONDO  
Larunbata, 18 GIL  
Igandea, 19 GIL  
Astelehena, 20 GANDARIA-URIBE  
Asteartea, 21 ORUE  
Asteazkena, 22 DE MIGUEL  
Osteguna, 23 LASA

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 8Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).



**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### LANA

#### ESKARIA

Edozein lan egiteko prest nago: adineko pertsonak zaindu, baserrietan lan egin, portalak garbitu, e.a. Berehala hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 604 341 893.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeke lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 606 661 048.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

#### Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta  
Jose Lanchas.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Erakusketa.** Zorione Mendezen *Marrak* erakusketa ikusgai izango da otsailaren 11ra arte. Aurpegi eta gorputzen grabatu eta marrazkiez osatuta dago erakusketa. *Marrak* dira nagusi irudietan. Siglo20, egun osoan zehar.



**LASARTE-ORIA Jaia.** San Sebastian eguna, astelehenean bada ere, gaur, ostirala Lasarte-Oriako ikastetxeetan danbor soinuak izango dira nagusi, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko eta Landaberri ikastolako haurrek San Sebastian eguna ospatuko baitute. Realaren himnoa, Lasarte-Oriako ereserkia eta Sarriegiren doinuen erritmora ederki astinduko dituzte danborrak. Ordeutgia:

15:00etan, Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko HHko haurrak, Isla plazan.

15:45ean, Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko LHko gaztetxoak, Sasoeta eraikinean.

16:00etan, Landaberri ikastolako HHko haurrak, Garaikoetxea eraikinean.

16:00etan, Landaberri ikastolako LHko gaztetxoak, Zubieta eraikinean. Ikastetxeetan, gaur, ostirala, 15:00etatik aurrera.

## OSTIRALA 17

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Jokin Goenaga musikariaren lanen erakusketa egingo da. QR kodeen bitartez herritarrak konposatutako doinuak entzun ahalko dira. *Smartphone*-a eta aurikularrak beharrezkoak dira.

Mercero gunea, gaur ostirala, eta bihar, larunbata 18, 10:00etatik 12:00etara; urtarrilaren 20tik 24ra, 18:00etatik 20:00etara.

### ANDOAIN Musika

Lorelei taldearen agurretik bi hamarkada iragan diren honetan, antzokietara itzultzea erabaki dute Mikel Gorosabelek eta Asier Serranok. Denborak ematen duen heldutasunaz, beraien eskaintza pop-rock lirikoak birpatsatzeko asmoa dute. Sarrera, 12 euro.

Bastero kulturgunea, 21:30ean.

## LARUNBATA 18

### LASARTE-ORIA Bilera

Urtarrilaren 30eko greba dela eta, Lasarte-Moriak bilera informatiboa eta argazki masiboa egingo ditu. Bilera informatiboa, Antonio Mercero aretoan izango da. Ostean, argazki masiboa egingo da. Ekimenak zapi

edo besoko moreak eramatera animatzen ditu argazkian parte hartu nahi duten herritarrak. Okendo plaza, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Perigallo teatro taldeak *Espacio disponible* antzerkia eskainiko du. Bikote erretiratu bat bere semearen bisitaren zain dago. Semeak berarekin eraman nahi ditu bizitzera, merezi duten bezala zaintzeko. Aurreko gauean ezin dute lorik egin eta hainbat gaietaz solasten dira. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona, 20:00etan.

## IGANDEA 19

### DONOSTIA Ikuskizuna

*Motxilak Gora* ikuskizuna antolatuta du Sare Herriarrak. Porrotzek gidatutako ikuskizunean, motxiladun ume desberdinek parte hartuko dute. Ekimen berezia ere egingo da, Xua bere gurasoengandik ez banatzeko eskatuz. Sarrera, 6,60 euro. 2 urte arteko umeak, doan. Atano III pilotalekua, 11:30ean.

### ASTIGARRAGA Antzerkia

Zurrunka antzerki taldeak itzalak, titereak eta ahokotasuna nahasten ditu *Aioko* antzerkian. Bi haur Aioko uhartera iristen dira eta abentura ugari biziko dituzte bertan.

Aniztasunari buruzko gogoeta egiten du lanak. Sarrera, haurrak 2,50 euro eta 5 euro, helduek. Kultur etxea, 17:00etan.

## ASTEARTEA 21

### LASARTE-ORIA Irakurle Txokoa

Robert L. Stevensonoren *Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bixia* liburua aztertuko dute Irakurle Txokoko lagunek. Manuel Lekuona, 18:30ean.

### LASARTE-ORIA Herri batzarra

EH Bilduk antolatuta, Esti Elduaian Uranga batzarkidearekin pentasio publikoei buruzko gogoeta egingo da. Antonio Mercero gunea, 19:00etan.

### HERNANI Mahai ingurua

Urtarrilaren 30eko greba dela eta, Euskal Herriko Karta Sozialak mahai ingurua antolatuta du grebaren zergatiak azaltzeko. Biteri kultur etxea, 19:00etan.

## ASTEAZKENA 22

### LASARTE-ORIA Bilera

Euskal Herriko Karta Sozialak urtarrilaren 30ean deitu duen greba dela eta, agerraldi publikoa egingo du Lasarte-Oriako greba batzordeak. Antonio Mercero gunea, 19:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

#### La odisea de los Giles

Ostirala: 22:00.

#### Frozen II

Igandea: 17:00.

#### La odisea de los Giles

Igandea: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

#### Jojo Rabbit

Ostirala: 15:45,

18:05, 20:15,

22:35, 00:55.

Larunbata: 15:45,

18:05, 20:15,

22:35, 00:55.

Igandea:

15:45, 18:05,

20:15, 22:35.

#### Bad Boys for Life

Ostirala: 16:00,

18:40, 20:15,

21:30, 00:10.

Larunbata: 16:00,

18:40, 20:15,

21:30, 00:10.

Igandea:

16:00, 18:40,

20:15, 21:30.

#### Malasaña 32

Ostirala: 15:45,

18:00, 20:25,

22:40, 00:55.

Larunbata: 15:45,

18:00, 20:25,

22:40, 00:55.

Igandea:

15:45, 18:00,

20:25, 22:40.

#### 1917

Ostirala:

16:15, 18:45,

21:20, 00:00.

Larunbata:

16:15, 18:45,

21:20, 00:00.

Igandea: 16:15,

18:45, 21:20.

### Star Wars:

#### Episodio IX - El Ascenso de Skywalker

Ostirala:

16:00, 19:00,

22:00, 00:15.

Larunbata:

16:00, 19:00,

22:00, 00:15.

Igandea: 16:00,

19:00, 22:00.

#### Jumanji: Siguiente nivel

Ostirala: 15:50,

18:25, 21:00.

Larunbata: 15:50,

18:25, 21:00.

Igandea: 15:50,

18:25, 21:00.

#### Espias con disfraz

Ostirala:

15:45, 18:00.

Larunbata:

15:45, 18:00.

Igandea:

15:45, 18:00.

### La maldición

#### (The Grudge)

Ostirala:

22:50, 00:55.

Larunbata:

22:50, 00:55.

Igandea: 22:50.

#### Richard Jewell

Ostirala:

18:45, 21:30.

Larunbata:

18:45, 21:30.

Igandea:

18:45, 21:30.

#### Frozen II

Ostirala: 16:30.

Larunbata: 16:30.

Igandea: 16:30.

#### Joker

Ostirala: 23:40.

Larunbata: 23:40.

#### Si yo fuera rico

Ostirala: 00:55.

Larunbata: 00:55.



### LABURPENA

### La Odisea de los Giles

**Zuzendaria:** Sebastián Borensztein. **Gidoilariak:** Sebastián Borensztein, Eduardo Sacheri. **Musika:** Federico Jusid. **Argazkia:** Rodrigo Pulpeiro. **Herr:** Argentina (2019). **Antzezleak:** Ricardo Darín, Luis Brandoni, Chino Darín, Verónica Llinás, Daniel Aráoz, Carlos Belloso, Rita Cortese, Andrés Parra, Marco Antonio Caponi, Ailín Zaninovich. **Iraupena:** 116 minutu.

## Justizia egin nahiaren abenturak

Lasarteoriatarrak bi aukera izango dituzte asteburu honetan *La odisea de los Giles* filma ikusteko. Ostiralean, Okendo Zinema taldeko zineforumean filma ikusi eta aztertuko dute; igandean, berriz, helduen zinema atalean gozatu ahalko da film argentinarrak.

*La odisea de los Giles* Sebastián Borenszteinek zuzenduriko abenturazko filma da eta Eduardo Sacheriren *La noche de la Usina* eleberrian oinarrituta dago.

Nazioarteko zinemaldietan ikusi ahal izan da, hala nola, Donostiako 67. Zinemaldian lehiaketatik kanpo eskaini zuten. Sariak eta

hautagaitzak ere jaso ditu. La Habanako zinema jaialdian Luis Brandoni aktore onenaren saria lortu zuen eta Goya sarietan Iberoamerikako film onenaren hautagaien artean da.

2001 urtea da. Buenos Aires eremuko herri bateko biztanleak aurrezki guztiak banku batean sartuko dituzte nekazarien kooperatiba bat hondotik ateratzeko asmoz. Etorkizuna aldatuko diela uste dute. Baina iruzur bat medio, diru guztia galduko dute. Bertako futbolari mitiko bat, Perlassi, buruan dutela, justizia euren kasa ezartzea erabakiko dute.





**Landaberri**  
IKASTOLA  
LASARTE-ORIA

Zure herrian bertan, euskaraz

**baikara** 

Gipuzkoako IGEen federazioa

**MATRIKULAZIOA:**  
urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

**ATE IREKIAK GURASO BILERA HH eta LH:**  
urtarrilaren 23an,  
osteguna, 15:30ean  
Garaikoetxea eraikineko soinketa gelan

**ESKOLA KOMUNITATEAK  
ADOSTUTAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA**

- 2 urtetik aurrera

- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza: ingelesa 4 urtetik aurrera
- Sare Hezkuntza: baliabide digitalak Curriculumean
- Aniztasunaren trataera: behar bereziak dituzten ikasleentzat
- Bizikasi ekimena: elkarbizitza giro on bat bideratzeko
- Eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio zerbitzua
- Jangela zerbitzua HH3tik aurrera
- Goizeko 8:00etatik 9:00etara harrera zerbitzua
- Eguerdiko zaintza zerbitzua iraila eta ekainean goizez gaudenean



**HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikula**  
Garaikoetxea eraikinean (Atsobakar 3)  
Tel: 943370662 landabulego@gmail.com  
Ordutegia: 09:00etatik 13:00etara

